



AGENDA | EZTABAIDA | ZERBITZUAK | IRUDIETAN | MERKATU TXIKIA | AGURRAK

Aia
Aizarnazabal
Azkoitia
Azpeitia
Beizama
Errezil
Getaria
Orio
Zarautz
Zestoa
Zumaia



Tolosaldeko hitza
Oarsoaldeko hitza
Urola Kostako hitza
Harpidetu zaitez

Dagoeneko

ZARAUTZ

GIZARTEA >>

Herriak nekez ahaztuko duen kirolzalea

Emilio Olazabal atzo hil zen, azken egunak ospitalean igaro eta gero

L. AGIRREZABAL / G. BERSALUZE

Kirola eta kultura sustatzen Zarautz mailan hainbat lan egin zuen Emilio Olazabal Etxabe atzo hil zen, 83 urte zituela. Lanbidez burdindegiko saltzailea izan zen Olazabal, baina ez zen geldirik egotekoa, eta hainbat ekimen garrantzitsu abiarazi zituen bai kirolean eta baita kulturaren ere. Besteak beste, 1944an Zarautzko Kirol Elkartea eta plaieroak sortu zituen, beste zenbait lagunekin batera. Orduanik, etenik gabe aritu zen Olazabal, kirol eta kultura ekimen ezberdinak sustatzen.

1944ko otsailaren 8an Club Deportivo Zarautz sortu zuten, «orduan ezin baitzen euskaraz izenik jarri». 1968an, elkartearen baitan, Halterofilia saila sortu zuten, eta geroago baita Gipuzkoako Federazioa ere. Olazabal bera izan zen bertako lehendakari, 18 urtez.

Albistea, ezustean

Garai batean Zarautzko Kirol Elkarteko lehendakaria izan zen Paco Urkiak oso ezaguna eta laguna zuen Emilio Olazabal. Atzo eguerdian, berria jakin zuenean, «ustekabe» hartu zuen albistea. Izan ere, ostiralean bertan hitz egin zuen Emiliorekin, hura ospitalean zegoela, eta «animoso» sentitu zuen. «Ahotsean nabaritzen zitzaion paliza handia hartuta zegoela. Izan ere, gripearekin egon da azkenaldian, eta 12 kilo galdu zituen. Baina errekuperatzen ari zen orain, eta animoso sentitu nuen ostiralean hitz egin genuenean». Paco Urkiak zehaztu duenez, «Don Ramonekin ere egunero izaten zuen harremana, eta haren bidez izaten nuen Emilioren berri. Laster etxera etortzekotan zela eta animatu antzera zebilen. Jo ta ma geratu naiz gaur [atzo] eguerdian, albistea jakin dudanean».

Atzokoa baino atzerago begira jarriz gero, berriz, oroitzapen ugari datozkio Paco Urkiari. Olazabali buruzko zerbait nabarmentzeko eskatu, eta «zer esango dizuet bada» esaten du. «Ez da erraza. Beti zerbait berria egin nahian aritzen zen, beti aurrera begira pentsatzen. Geldirik egoten ez zen horietakoa zen. Beti zerbait egin behar!».

Emilio Olazabal duela zenbait egun eraman zuten erietxera. Bakarrik bizi zen, eta etxean aurkitu zuten, erorita.

Olazabalen aldeko hileta elizkizunak gaur egingo dira, Zarautzen, Frantziskotarren elizan, arratsaldeko 18:30ean.

Memoria fina eta buru argia

Hiztuna, sortzailea eta bizia zen Emilio Olazabal; Zarautzen kirolaren alde gehien egin duenatarikoa, ezbaierik gabe

L. AGIRREZABAL

Burua ideia berriz beteta, ahoa horiek guztiak proposatzeko gertu, eta bera dena martxan jartzeko beti prest. 83 urterekin ere egindako gauza guzti-guztien zerrenda luzea memorian gordeta zeukan. Xehetasun guztiekin kontatu zuen martxan jarritako ekimenen berri 2002ko abenduaren 13an Txaparro aldizkarian Jaione Aizpuruak egin zion elkarrizketan:

Euskadiko Halterofilia Federazioko lehendakari. «Nafarrak, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, arabarrak mahaian eseri ginen eta Euskadiko Halterofilia Federazioa egin genuen. Honela, Euskadiko lehenengo lehendakaria ere izan naiz».

Zarautzko Kirol Elkartearen sortzaile. «Zarautzko Kirol Elkartea sortu zenean, anaia eta biok soldadu ginen eta egun batean gurasoei esan genien Urtetara gindoazela oinez. Pasaran Tximista eta Aitzaki taldeak ikusi genituen Aritzbatalden futboleak. 1943. urteko futbolariak ziren. Beraiei begira egon ginen eta haien alde zerbait egitea pentsatu genuen».

'Olazabal' liburua. «Liburua egiten 14 urte eta 7.000 ordu pasatu ditut. Olazabal abizenaren inguruan aztarrena ateratzen ibili naiz.».

Bultzatutako ekimenak. «Hainbeste izan dira! Baina nire anaia Xanti Olazabalen laguntzarik gabe



handitu

Herriz herri:

AGENDA

> MUSIKA
ZUMAIA.
Kontzertua(2005-03-06)

> ERAKUSKETA
AZKOITIA. Margo
erakusketa(2005-02-18)
ekitaldi guztiak ikusi

INKESTA

> UROLA-KOSTA

Ikea bezalako eremu handiko saltokiak, eskualdeko altzarigintzaren kalterako direla iruditzen al zaizu?

Bai Ez

► Emaitzak eta iritziak ikusi

EZTABAIDA

> UROLA-KOSTA

Elur ugari egin du aurten. Gustukoa duzu, ala nazkatu zara dagoeneko?

ZORION AGURRAK



URTE ASKOAN
Pedro (Aizarnazabal)

ZERBITZUAK

- Telefonoak
- Tren eta autobusen ordutegiak
- Farmaziak
- Internet helbideak

IRUDIETAN



ZARAUTZ. Errugbia

ezingo nituzkeen egin».3

Aurreko edizioak: 

© Urola Kostako Hedabideak S.L. Zelai Ondo 23, 20800 ZARAUTZ



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea